

## XEDAPEN OROKORRAK

### OSASUN SAILA

## 5035

*AGINDUA, 2017ko urriaren 4koa, Osasuneko sailburuarena, Osasun Saileko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituena.*

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua haxe xedatzen du: Estatuko Buletin Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako xedapen orokor baten bidez bakarrik sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango dira Administrazio Publikoetako fitxategiak. Horren erregelamenduak, 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onartuak, ezartzen du xedapen horren oinarritzko edukia, 54. artikuluan, hain zuzen.

Datu pertsonaleko jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak 4. artikuluan ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko administrazioeko fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko, dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularrak emandako agindua behar da. Indarrean dauden legeek eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da. Lege horren 18. artikulua sortzen du datuak babesteko erregistroa, eta xedatzen du bertan inskribatu behar direla bere aplikazio-eremuaren barruko fitxategiak.

Urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren bidez garatzen da Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legea. Bada, dekretu haren 2. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi beharko diote datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo deuseztatu izana, gorabehera horiek Datuak Babesteko Erregistroan inskriba daitezzen, eta, hartarako, xedapena edo erabakia igorri beharko da, Datu Pertsonalak Babesteko Euskal Agentziako zuzendariaren 2014ko urriaren 31ko Ebazpenaz onartutako modelo normalizatuaren bidez igorri ere (2014ko azaroaren 14ko EHAA, 218. zk.).

2011ko abenduaren 22ko Aginduaren bidez arautu ziren Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobideko datu pertsonalen fitxategiak.

Argitaratu ondoren, Saileko egiturazko antolamenduan gertatutako aldaketak eta hainbat arlotako jarduera berriak zirela-eta, beharrezkoa egin zen agindu haren eranskinak aldatzea, bi helbururekin: administrazioak herritarren datuez egiten duen erabilerari gardentasuna ematea, eta, batez ere, herritarrek datu horiek eskuratu, zuzendu, ezabatu eta haien kontra egin ahal izatea, fitxategien eta egungo organo arduradunen zerranda eguneratu bat emanaz aldi berean.

Horren guztiaren ondorioz, Osasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 2ko Agindua onartu zen, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobideko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituen Agindua aldatzen duena (2014ko ekainaren 23ko EHAA, 117. zk.; hutsen zuzenketa: 2014ko urriaren 10eko EHAA, 193. zk. eta urriak 13ko EHAA, 194. zk.).

Horren ondoren, Osasuneko sailburuak 2015eko ekainaren 8an emandako aginduak bigarren aldiz aldatu zuen aipatutako agindu hura, 2011ko abenduaren 22ko Aginduaren I. eranskinean gordetako bi fitxategi berri sartzeko modua izateko (2015eko ekainaren 25ko EHAA, 118. zk.), eta arauak aldatu ahala fitxategiak arauetara egokitu ahal izateko.

Orain, agindu horren eranskinen bat aldatzeko eskaerak jaso ditugu dagoeneko. Halaxe izan da Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritzaren mendeko Biztanleria-oinarriko aseguramenduko sistema integratua izeneko fitxategiaren kasuan, eta Farmazia Zuzendaritzaren mendeko Errezeta elektronikoa izenekoaren kasuan.

Aldi berean, erregularizatzeko premia hori baliatu dugu egokitu beharra zeukaten beste fitxategi batzuk ere egokitzeko.

Lege, agindu eta ebazpenen egitasmoak prestatzeko jarraibideen agiriak (1993ko martxoaren 23ko saioan Gobernu Kontseiluak onartutakoak), honako hau dio, besteak beste, 7. jarraibidean (Aldaketa-arauak): aldaketak oso luzeak badira edo behin eta berriz egiten badira, xedapen erabat berria egingo da.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariak azaroaren 26an eman-dako 24/2016 Dekretua onartuz gero sortuko liratekeen ondorioak ere jaso beharko ditu agindu honek, ezinbestean; zehazki 13.1 d) artikuluan sortu diren ondorioak (2016ko azaroaren 28ko EHAA); artikulua horrek Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari egozten dio kontsumo-arloko egitekoak eta jardun-arloak, eta 2. puntuak sail horri atxikitzen dio Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoa, aurrez Osasun Sailari atxikia zegoena.

Hori dela eta, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honek Osasun Sailak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategiak arautuko ditu.

2. artikulua.– Fitxategiak sortzea.

Datu pertsonalak dituzten fitxategiak sortuko dira (xehetasunak agindu honen eranskinean datoz):

a) 1.– Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.1.– Espediente juridikoak.

b) 2.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

2.23.– Zehapen espedienteak.

c) 3.– Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioaren Zuzendaritza.

3.8.– Zehapen espedienteak.

d) 4.– Farmazia Zuzendaritza.

4.8.– Zehapen espedienteak.

e) 6.– Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

6.15.– Zehapen espedienteak.

f) 7.– Osasuneko sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza.

7.1.– Arartekoaren eta Parlamentuaren informazio-eskaerak.

### 3. artikulua.– Fitxategiak aldatzea.

Honako datu personal hauen fitxategiak aldatuko dira, agindu honi erantsita datorren eranski-neko aldaketak jasota:

a) 1.– Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.2.– Kontratazio-espedienteak.

b) 1.– Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.3.– Langileak.

c) 1.– Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.4.– Bideozaintza.

d) 3.– Aseguramendu eta Kontratazio Zuzendaritza.

3.2.– Biztanleria-oinarriko aseguramenduko sistema integratua.

3.3.– Kontratazio sanitarioa.

e) 4.– Farmazia Zuzendaritza.

4.3.– Esklerosi Anizkoitzerako medikamentuen kudeaketa.

4.4.– Errezeta elektronikoa.

f) 6.– Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.

6.3.– Ospitaleetako alden erregistroa (DGOB).

### 4. artikulua.– Fitxategiak ezabatzea.

Honako datu pertsonalen fitxategi hauek ezabatuko dira, agindu honi erantsita datorren eranskineko aldaketak jasota.

a) 1.– Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.1.– Erreklamazioak eta demandak.

Ezabatutako fitxategian zeuden datuak aurrerantzean agindu honetako 2. artikuluko a) Espediente juridikoak eta f) Arartekoaren eta Parlamentuaren informazio-eskaerak atalean sortuko diren fitxategietara pasako dira. Ezabatutako fitxategian izan daitezken beste datu pertsonalei dagokionez, suntsitu egindo dira.

b) 1.– Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.6.– Zehapen espedienteen erregistroa.

Ezabatuko den fitxategian zeuden datuak agindu honetako 2. artikuluko b), c), d) eta e), atalen bitartez sortuko diren fitxategietara pasako dira, bakoitza bere eremu materialaren arabera.

### 5. artikulua.– Fitxategien helburua.

Agindu honen xede diren fitxategiak, eranskinean adierazitako helburuak betetzeko erabiltzeaz gain, estatistikak egiteko ere erabiliko dira. Eranskinean sartzen diren fitxategiak, gainera, osasun publikorako, ikerketa epidemiologikoak egiteko edo osasun-ikerkuntzetarako ere erabiliko dira.

agian. Datuak tratatzeko, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

#### 6. artikulua.– Datuak lagatzea.

1.– Agindu honen eranskinean fitxategi bakoitzerako aurreikusten diren datuen lagapenak gorabehera, fitxategian barne hartutako datuen lagapena egin ahal izango da, Osasun Sailaren eremuan, eskumen berdinak eta antzeko gaiak buruzkoak gauzatzeko.

2.– Halaber, fitxategi horietako datuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoko eta bestelako Administrazio publikoetako estatistika-organo eta -zerbitzuei utzi ahal izango zaizkie; betiere, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Estatistika Funtzio Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean xedatutakoaren babesean.

3.– Osasun arloan, aukera egongo da eranskinean jasotako fitxategietako datuak beste osasun-administrazio batzuei lagatzeko, betiere arau hauek errespetatuta: Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, eta abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua (15/1999 Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onartu zuena). Eta osasun-alarreko arauak dagokienez, berriz, arau hauek errespetatuta: Osasun publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoa; apirilaren 25eko 14/1986 Legea, Osasunari buruzko orokorra; azaroaren 14ko 41/2002 Legea, hau da, informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan eskubideak eta obligazioak eta pazientearen autonomia arautzekoa dena; Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1987 Legea, eta gainerako euskal arau autonomikoak.

4.– Osasun Saileko Sailburuordetzak, bakoitzak bere eskuduntzako arloan, datuen tratamendurako lankidetzak hitzarmenak itundu ahal izango dituzte, 15/1999 Lege Organikoan, eta hura garatzeko araudian, datuen jabeen berme eta babesari buruz agintzen dena zehazki betez.

#### 7. artikulua.– Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Fitxategi bakoitzaren organo arduradunen titularrek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte fitxategi horiek sortuak izan ziren helburuetarako erabiliko direla bermatzeko eta izaera pertsonaleko datuen segurtasunerako, horrela eragotziz, batetik, berauen aldaketa, galera eta baimendu gabeko tratamendu edo eskuratzea, eta bestetik, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta berau garatzeko arauetan aitortutako gainerako bermeak betebeharrak eta eskubideak aintzat har daitezten.

#### 8. artikulua.– Datuen tratamendurako zerbitzuak ematea.

Datu-tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideak kontuan hartu beharko dituzte Osasun Sailaren aginduz datu pertsonalen tratamendu-zerbitzua ematen dutenek, tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera, eta hala jaso beharko da zerbitzua eskaintzeko egingo den kontratua. Beraz, datuok ezin izango dira beste ezertarako aplikatu edo erabili, eta ezin izango zaio inori haien berri eman, ezta datuok gordetzeko bada ere; hala agintzen du abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikulua.

2017ko urriaren 20a, ostirala

## XEDAPEN IRAGANKORRA

2011ko abenduaren 22ko Aginduak (Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakundeko datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituenak) eta horren aldaketek indarrean jarraituko dute Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakundeko fitxategiei dagokienez, harik eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak horien agindu arautzailea onartu arte.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu honek indarra hartzeaz bat, indargabe jarriko da, Osasun Sailaren eskumeneko datu pertsonalen fitxategiei dagokionez, 2011ko abenduaren 22ko agindua (Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua erakundeko datu pertsonalen fitxategiak eta horren aldaketek arautzen dituenak), bai eta agindu honen edukiaren kontra jartzen den maila bereko edo beheragoko beste edozein xedapen ere.

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.**– Aurrerantzean ere indarrean egongo diren datu pertsonalen fitxategiak.

Agindu honetako Osasun Saileko langileen datu pertsonalen fitxategia izeneko eranskinean agertzen diren fitxategiak aurrerantzean ere indarrean egongo dira, baina soilik datuok sistematizatuta edukitzeko.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.**– Datuak Babesteko Erregistroa indarrean jartzea, eta datuak bertan inskribatzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta horren berri emango zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, horretarako ezarritako prozedura normalizatua erabilita, Datuak Babesteko Erregistroan inskriba dezan eta, aurrerago, Datuak Babesteko Espainiar Bulegoaren Erregistroan sar dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 4a.

Osasuneko sailburua,  
JON DARPÓN SIERRA.

## ERANSKINA

## OSASUN SAILEKO FITXATEGIAK

Hona hemen aurrerantzean Osasun Sailak kudeatuko dituen datu pertsonalen fitxategiak, bakoitzak duen arduradunaren arabera azalduta:

1.– Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

1.1.– Espediente juridikoak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Prozedura administratibo eta judizialen kudeaketa eta kontrola.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Osasun Sailaren aurka zuzenduriko prozedura administratibo-judizialean interesatuak dauden pertsonak eta Osasun Sailak igorritako ofizioen hartzaile diren pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura.

Datuak interesdunengandik, Administrazio Publikoetatik, epaitegi eta auzitegietatik jasotakoak dira, espediente administratiboen bitartez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, helbidea, NANA, Gizarte Segurantzako zenbakia / Mutualitatea.

Transakzioen datuak: eraginpeko pertsonak jasotako ondasun eta zerbitzuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Erdi-maila.

### 1.2.– Kontratazio-espeditentak:

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Kontratazio-organoa Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritza den kontratazio-espeditenteen kudeaketa administratiboa.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Administrazioarekin kontratatzen duten enpresetako ahaldunak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunengandik jasotzen dira, formularioen bitartez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak; NANA / IFZ, helbidea.

Enpleguaren inguruko datu zehatzak: kargua.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorrerako Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorrerako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarritzko maila.

### 1.3.– Langileak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Osasun Saileko barneko langileen arlo espezifikoetako kudeaketa, adibidez, euskalduntze-plana, lanpostu-zerrendako (LPZ) datuena, eta abar.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Osasun Saileko langileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunarengandik jasotzen dira Langileen Kudeaketa Integratua (LGI) aplikatuz.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: NAN/IFZ, izen-abizenak.

Ezaugarri pertsonalen datuak: jaioteguna.

Datu akademiko eta profesionalak: titulazioa, euskara-profila.

Enpleguaren inguruko datu zehatzak: lanpostua.

Zehapen-espedienteen datuak: ebazpen administratiboak edota penalak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Erdi-maila.

1.4.– Bideozaintza.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Ledo eraikinera (Osasun Sailaren Bizkaiko ordezkariaren egoitzara) eta haren eremu sentikorretara sartzeko kontrola, eraikin horien segurtasuna bermatzeko.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Ledo eraikinera eta haren eremu sentikorretara sartzen den pertsona oro.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunarengandik jasotzen dira, bideograbazioaren bidez eta hurbiltasun-txartelen bidez.



d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: irudia, ahotsa.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoak.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Errekalde zumardia 39 A.

48008 Bilbao.

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

1.5.– Sarrerak eta irteerak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Agirien, fardelen eta antzeko artikuluen sarrera eta irteera erregistratzea. Lurralde Ordezkaritzetatik, eskualdeko zentroetatik eta ikuskapen medikoko zentroetatik ateratzen eta haietara sartzen diren dokumentuen oinarrizko datuak erregistratzea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Lurralde Ordezkaritzetatik, eskualdeko zentroetatik eta ikuskapen medikoko zentroetatik bidaltzen eta haietara heltzen diren dokumentuen, paketeen eta antzeko artikuluen bidaltzaileak edo hartzaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak eta erregistratzaileak ematen dituen interesduna bera edo haren lege-ordezkaria.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: NAN edo IFZ, izen-abizenak, helbidea.

Enpleguaren inguruko datu zehatzak: enpresa, lantokia.

Transakzioen datuak: erreferentzia-gaia.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Olagibel kalea 38.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Errekalde zumardia 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Antso Jakituna 35.

20010 Donostia.

j) Segurutasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

1.6.– Tasen eta bestelako diru-sarreraren kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Tasengatik eta bestelako kontzeptuengatik sortzen diren diru-sarrerak kudeatzea eta kontrolatzea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Subjektu pasiboak edota tasen arduradun diren pertsonak osasunaren eta administrazio-zerbitzuen arloan, baita beste zenbateko batzuk Osasun Sailari nahitaez ordaindu behar dituzten pertsonak, indarreko araudia edo hitzarmenak aplikatuta.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunengandik edo beste Administrazio batzuegandik jasotzen dira formularioen edo aplikazio informatikoen bitartez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, edo izaera soziala, IFZ, helbidea (postakoa, elektronikoa), telefono-zenbakia.

Datu ekonomiko-finantzarioak: diru-sarreraren kontzeptua eta zenbatekoa.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ogasun eta Finantza Sailari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Olagibel kalea 38.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Errekalde zumardia 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Antso Jakitunaren kalea 35.

20010 Donostia.

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

2.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

2.1.– Osasunerako sustapena eta hezkuntza.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Aholku-, prestakuntza- eta babes-eskabideen kudeaketa, osasunerako sustapen eta hezkuntza-ren arloan; horrez gain, materiala eta dokumentazioa maileguan uztea. Eskabideen eta premien analisia egitea. Zerbitzua ebaluatzea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Zerbitzua eskatzen duten interesdunak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunengandik, entitate pribatuetatik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik eta udaletatik jasotzen dira, formulario, telefono, fax eta transmisio elektronikoaren bitartez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, helbidea / helbide elektronikoa (pertsonala, lanekoa), telefono-zenbakia (pertsonala, lanekoa).

Datu akademiko eta profesionalak: lanbidea, prestakuntza-zentroa, prestakuntza-jardueraren mota.

Enpleguaren inguruko datu zehatzak: lantokia.

Transakzioen datuak: eraginpeko pertsonak jasotako ondasun eta zerbitzuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarritzko maila.

2.2.– Ingurumen Osasunaren Kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Ingurumen-osasunaren lan-arloko kudeaketa, pertsona eta erakundeen identifikazio-datuak, bai eta jarduera-programetan kontrolerako eta jarraipena egiteko jasotako datuak ere: osasun-zentroen hondakinak kudeatzen planak, kontsumo-urak, jolaserako urak, legionellari buruzko arrisku-instalazioak, enpresa eta zerbitzu bioziden erregistroa, salaketak eta alertak, sektoreko araudiak eskatutako gaikuntza-ikastaroak emateko erakunde eta pertsona baimenduen erregistroak, pres-takuntza-ikastaro horiek egin dituzten pertsonen erregistroak eta sail arteko lan-batzordeetako parte-hartzaileak.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Instalazio edo entitateen titularrak edo arduradunak eta araudi sektorialek exijitzen dituzten gaitasun-ikastaroak egin dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunengandik, administrazio publikoetatik eta ikastaroak ematen dituzten trebakuntza-zentroetatik jasotzen dira, formulario eta inkesten bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak; NANA, helbidea, telefono-zenbakia.

Merkataritza-informazioko datuak: jarduerak eta negozioak, jarduera mota, jarduera jakin batzuk garatzeko gaikuntza.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Administrazio publikoei (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunaren Ministerioari, eta tokiko eta lurraldeko administrazioei).

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Santiago hiribidea 11.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Errekalde zumardia 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariorde eta Zuzendariordetza.

Nafarroa etorbidea 4.

20013 Donostia.

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

2.3.– Laguntzak jasotzea dagokien entitateak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako, tokiko erakundeentzako eta irakaskuntza-zentroentzako laguntza ekonomikoen esleipena kudeatzea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Irabazi-asmorik gabeko entitateen, tokiko entitateen eta irakaskuntza-zentroen ordezkariak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak pertsona edota erakunde interesdunengandik jasotzen dira, formularioen eta transmisio elektronikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: erakundearen ordezkariaren izena eta abizenak, erakundearen helbidea, erakundearen izena.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sorospenak, laguntzen zenbatekoa, laguntzen helburua.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

2.4.– Elikagaien Osasunaren Kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Elikadura-osasunaren kudeaketa eta osasun publikoa babestea. Instalazioen eta elikadura- eta ostalaritza-establezimenduetako manipulazio praktiken egoera higieniko-sanitarioei jarraipena egitea. Baimenak ematea. Autokontrolak egiteko obligazioa duten establezimenduen dokumentu-tramitea kudeatzea. Hiltegietan animaliak hiltzeari jarraipena egitea, eta egindako dekomisoak adieraztea. Animalien bizkarrezurra erazteko baimena duten establezimenduak kontrolatzea. Albaitaritza-hondakinen lagin-hartzearen kudeaketa.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Elikadura-establezimenduen, abeltzaintzako ustategien eta Arrisku Material Espezifikoa erazteko baimena duten zentron titularrak edo arduradunak, baita janarien manipulatzeari buruzko ikastaroak emateko baimena duten irakasleak ere.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunarengandik, ikuskatzaileengandik, hiltegietatik eta udal batzuetatik jasozten dira, formulario, transmisio elektronikoko, dokumentuen aurkezpen eta ikuskapen-akten bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, NANA.

Datu akademiko eta profesionalak. titulazioa (janariak manipulatzeko prestatzaileei dagokiena).

Merkataritza-informazioko datuak: jarduerak eta negozioak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Estatistikak egiteko ardura daukaten zerbitzu publikoei (Eustat), Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunaren Ministerioari eta osasunaren arloan eskumena daukaten beste erakunde publiko batzuei, foru-aldundiei eta udalei.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Santiago hiribidea 11.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Errekalde zumardia 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Nafarroa etorbidea 4.

20013 Donostia.

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

2.5.– Osasun Publikoari buruzko Ikerketa Lanak.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Istripuzko lesioen prebentzioa eta osasunaren sustapeneko beste alderdi batzuk, osasun-zentroetako profesionalen jardueraren bitartez.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Osasun-zentroetara joaten diren pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunengandik jasotzen dira, langile sanitarioek eginiko elkarriketen edo inkesten bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, helbidea.

Zirkunstantzia sozialei loturiko datuak: zaletasunak eta bizimoduak, ohiturak, klase soziala.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.



h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Erdi-maila.

2.6.– Fineteco (Beharrian Terapeutiko Komunitarioen Fitxategia).

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Pertsona fisikoek beren patologia gainditzeko laguntza ekonomikoen esleipena kudeatzea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Laguntza-programan interesaturik dauden pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunarengandik edo haren tutorearengandik jasotzen dira, formularioen bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: interesdunaren izena eta abizenak, tutorearen izena eta abizenak.

Datu ekonomiko-finantzarioak: sorospenak, laguntzen zenbatekoa, batzordearen bileren aktak (laguntzak ematea).

Bereziki babesturiko datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Goi-maila.

2.7.– Epidemiologia.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Osasunaren babeserako neurri indibidual eta kolektiboak ezartzea. EAEn zenbait gaixotasunek daukaten intzidentzia ezagutzea eta zirkulazio-istripuak prebenitzeko kanpainak eta azterlanak egitea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko ospitale-zentro publiko zein pribatuetako pazientek eta mediku deklaratzailerak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak interesdunarengandik, mediku eta laborategi deklaratzailerengandik eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik jasotzen dira, formularioen, transmisio elektronikoaren eta ikuskapen-akten bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: pazientearen izena eta abizenak, NANA, helbidea, telefono-zenbakia, medikuaren izena eta abizenak.

Datu pertsonalak: jaioteguna, sexua, adina, familia-datuak, nazionalitatea, ezaugarri fisikoak; etorkina bada, etorrera-data.

Enpleguaren inguruko datu zehatzak: lanpostua.

Bereziki babesturiko datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari, beste autonomia-erkidego batzuetako osasun sailei eta osasunaren arloan eskumena daukaten beste erakunde publiko batzuei.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Santiago hiribidea 11.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Errekalde zumardia 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Nafarroa etorbidea 4.

20013 Donostia.

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Goi-maila.

2.8.– Biztanleria-erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren interesdunekin komunikatzea, Osasun Sailaren esku-menetatik eratorritako harreman juridiko-administratiboetarako dagokienez.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Dagokien udal-erroldean agertzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak Eustatetik eta INEtik jasotzen dira, transmisio elektronikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, helbidea.

Ezaugarri pertsonalen datuak: jaioteguna, sexua.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

2.9.– Jaioberriak

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

EAEko jaioberri guztien zerrenda jasotzea, datu-base bat prestatzeko osasun-plangintzarako, zaintza epidemiologikorako eta osasun publikoko programetarako.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko ospitale-zentro publiko zein pribatuetako pazientek eta mediku deklaratuak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak ospitaleetatik jasotzen dira, inkesta edo elkarrizketen, pazienteei eginiko proben eta jasotzen den dokumentazioaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalen datuak: jaioteguna, sexua.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Estatistikak egiteko ardura daukaten zerbitzu publikoei (Eustat), beste erkidego batzuetako osasun sailei, osasunaren arloan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila.

2.10.– Jaioberritako baheketaren eta sortzetiko malformazioen erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

EAEko jaioberriei buruzko informazioa jasotzea, gaixotasun endokrino-metabolikoen edo bes-telako gaixotasunen jaioberritako baheketaren kontrola ezartzeko, eta etorkizunean ager litezkeen patologiak prebenitzeko. Sortzetiko anomaliaren batekin jaio diren jaioberrien zerrenda egitea, eta lehenengo urtean kasu horiei egin beharreko jarraipena zehaztu ahal izatea. Jaiotza eta edoski-tzaroari buruzko prebentzio sanitarioko kanpainak egitea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko ospitale-zentro publiko zein pribatuetako pazien-teak eta mediku deklaratazaileak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak ospitaleetatik jasotzen dira, inkesta edo elkarrizketen, pazienteei eginiko proben eta jasotzen den dokumentazioaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalen datuak: jaioteguna, sexua.

Bereziki babesturiko datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Estatistikak egiteko ardura daukaten zerbitzu publikoei (Eustat), beste erkidego batzue-tako osasun sailei, osasunaren arloan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Goi-maila.

2.11.– Txertaketei buruzko informazio-sistema.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Immunizazioaren bidez tratatzeko modukoak diren gaixotasun kutsakorrek eta bestelako prozesu akutu edo kronikoak kontrolatzeko aukera izatea. EAEko txertaketa-programen jarraipena eta ebaluazioa izatea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko ospitale-zentro eta osasun-zerbitzu publiko zein pribatuetako pazienteak eta mediku deklaratzailleak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuok osasun-zentroetatik, kontsulta pribatuetatik edo lan-mutualitateetatik datoz, idatzizko dokumentuen bidez edo aplikazio informatiko jakin baten bidezko atzitze informatikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalen datuak: jaioteguna, sexua.

Bereziki babesturiko datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Beste autonomia-erkidego batzuetako osasun sailei, eta osasun-gaietan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Goi-maila.

2.12.– Informazio mikrobiologikoko sistema.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Gaixotasun kutsakorren kontrol epidemiologikoa egiteko aukera izatea EAEn, EAEko mikrobiologia-zerbitzuetako informazioan oinarrituta.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko ospitale-zentro eta osasun-zerbitzu publiko zein pribatuetako pazienteak eta mediku deklaratzailerak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

EAEko osasun-zentro publiko eta pribatuetako mikrobiologia-zerbitzuetatik datoz datuak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalen datuak: jaioteguna, sexua.

Bereziki babesturiko datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Beste autonomia-erkidego batzuetako osasun sailei, eta osasun-gaietan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Goi-maila.

2.13.– Laborategien kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Jarduera analitikoa eta laginen egoera kudeatzea.

b) Eragindako pertsonak edo taldeak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zentroetan jarduera analitikoaren menpe dauden pertsonak, eta droga-probak egiten zaizkien entitate eta enpresetako pertsonak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Datuak ospitaleetatik eta osasun mentaleko zentroetatik lortzen dira, datuen transmisio elektronikoen, pazienteei eginiko proben eta jasotzen den dokumentazioaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Identifikazio-datuak: izena eta abizenak; NANA, telefono-zenbakia, helbidea.

Ezaugarri pertsonalen datuak: adina, sexua, ezaugarri fisikoak, familia-datuak.

Bereziki babesturiko datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuak lagatzea:

Ez da halakorik antzeman.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Ez da halakorik antzeman.

h) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Donostia kalea 1.
